



Sabin Etxabeguren gogoan

Senide, Hibaika arraun-taldekide, kuadrillako eta gainerako adiskideen izenean

Zuzendaritzako kide, delegatu, sukaldari, gidari, zaintzaile, aita...
eta, batez ere, lagun.

Amaia Etxabeguren Aranzabal eta Agustin Arrieta Urtizberea

Hibaika

Hibaikako familiaren parte bihurtu zinen eta azken zortzi urte hauetan zure lana ezinbestekoa izan da guretzat. Neguan arratsaldero klubean sarturik, ba-teletan gaztetxoekin lanean, zenbat disfrutatzen zenuen. Eta udaran, zer esan. Hasieran urduritasunak gainditu egiten zintuen, baina bukaerarako telebistako

kameraren lagun eta guzti bihurtu zinen; eta zu txo-ratuta, kaletik jendeak ezagutzen zintuenean. Zenbat urduritasun, zenbat poz, zenbat tristura eta zenbat borroka. Beti korrika alde batetik bestera: ura erosi, gauzak konpondu, udalarekin hitz egin... Furgoneta gidatzen ere, atzean 12 metroko traineru-trailerra zenuela, nolako izerdi eta *malaostia* eta, oraindik ere, ze tortila goxoa prestatzen zenuen estropada bukatzen genuenerako.

la bihotzekoak jotzeko estropadak eginez eskertzen genizun dena, nahiz eta batzuetan segundoak kontratan erortzen ziren. Hala ere, dena aurka egonda ere, beti irribarrearekin itxoiten gintuzun. Hibaika hori baita: borrokan eta lanean jarraitu! Gutxi duzunean hori baita bide bakarra, erori eta altxa, etengabe, eta zuk hori oso ondo islatzen zenuen: erori eta altxa.

Ikusezina den hainbeste lan egin zenuen guregatik... eta ez zaigu eskerrak ematea besterik gelditzen, egunero zuk egindako lanak fruituak eman ditzan jarraituko dugu borrokan.

Ibaia

Zorra kitatu behar da, bukaera injustua izan da, pentsatu du Eguzkiak. Eta traineru beltzaren ibilbidea argizatzea erabaki du. Horregatik, berandu gabe, *Aiako Harrietako* zokotik atera, eta herriaren erdian kokatu da.

Mutu dagoen *Papeleran* hasi da dena. Haren isiltasuna entzuten da, aspaldiko greba egunetan bezala. *Santa Klara plazako* etxeko bizilagunek traineruaren ibilbideari begiratzten diote, eta, gero 5. solairurantz. Bosgarren solairutik ibaira, ibaitik bosgarren solairura. Traineru beltzak arraunketa solemnean jarraitzen du. Zumardian, jendea bildu da tabernetako atarietan, zigarroak eta edalontziak eskuetan. Hitzezko zurrumurrua ezerezean geratu da. Bakarren batek altxa du edalontzia ibaiari begira, "agur" esanez, eta besteek

ere, baiezko keinua eginez, edalontziak goratu dituzte, "agur". *Casas Nuevas* eskuin aldean geratu da, *zumardi* txikia ezkerrean. Zenbat aldiz zeharkatu da batetik besterako zubia? Zenbat aldiz zeharkatu duzu? *Koldo Mitxelena* eskolako umeak eta langileak tropelean joan dira ibairantz eta, traineruaren mugimendu pisuak harri bihurtu balitu bezala, estatuak moduan geratu dira. Arraunketaren erritmoak bertso triste batena dirudi. Errepidearen azpitik, Iztietan barna sartu da.

Ondartxora, helmugara iritsi da trainerua, eta arraunak Eguzkirantz altxa dituzte.

Paseoan dabilen batek arraunlariei galdetu die, "zer, gaur arraunak gora eta gora, gaur irabazi duzue?" Trainerutik trumoi ahots bakarra sortu da, "ez, gaur benetan galdu dugu".

Eguzkiak ezkutalekura joatea erabaki du, iluntasunaren txanda da.

